

ALFONSO GORROÑOGOITIA ZENDU DA

Alfonso Gorroñoigoitia hil da,ARRASATEko Esperientzia Kooperatiboaren bost fundatzaileenetako azkena.

Orain dela hilabete eta erdi baino ez, uztailearen 20an, Jose Mari Ormaecheak utzi gintuen,eta orain, irailaren 6an, Alfonso Gorroñoigoitia joan zaigu, MONDRAGON Taldearen sortzaileetatik bizirik zegoen azkena; biak ARRASATEko Esperientzia Kooperatiboa esaten zaionaren lider nagusiak izan ziren.

Hain zuzen ere, maiatzaren 9an, gure Batzar Nagusian, Elkartek aitortza erakutsi erakutsi zien balio kooperatiboak defendatu eta garatzeko egindako lanagatik, eta, gainera, ohorezko bazkide izendatu zituen.

*Aitortza hartan, gure Elkarteko lehendakari Miguel Angel Laspiurrek zera esan zien. Pertsona batzuek **utopietan** sinesten dute eta horietarantz doaz, eta batzuek betetzea lortzen dute. Alfonso Gorroñoigoitia, Jose Mari Ormaechea eta gainerako fundatzaileak, gaztetatik, lider karismatiko bati jarraitu zioten, Don Jose Maria Arizmendiarietari, zeinak utopia bat garatu baitzuen, ARRASATEko Esperientzia Kooperatiboa. Utopia plan bat da, proiektu bat, ustezko fikzio ideal bat, akaso irreal, baina ez ezinezkoa.Errealitate bihurtzeko modu bakarra horretarantz abiatzea da, helburu sinesgarri moduan. Denborak eta saiatzuek, erlatibotasunak eta lorpenari buruzko fedea erakutsi digute, batzuetan, utopia errealitate bihurtzen dela. Helburu moduan planteatu behar da...*

Gaur Alfonso Gorroñoigoitia galdu dugularik, pentsalari bat joan zaigu, bultzatzaile bat, lider bat, kooperatibista eredugarria eta, batez, ere, gizon zintzoa, beti gure gogoan edukiko duguna.

Eta Elkartetik, beti arte esanez, gure lehendakari Miguel Angel Laspiurrek aitortzaren egunean eskaini zizkion hitz hauek zuzendu nahi dizkiogu haren pertsonari:

Langile nekaezina, neurritsua eta gogoetatsua, irekia eta estrobertitua, sinesmen erlijioso eta humanistiko sendokoa, horiek dira Alfonso Gorroñoigoitiaren profila definitzen duten ezaugarrietako batzuk, zeinak gorputz eta arima jarri baitzituen ideal baten zerbitzura: laneko gizatasuna, eta pertsonaren duintasunaren aldeko errespetua. Eta uztarketa horregatik da pertsona bikaina, bizitzako etsenplu plan, ezinbesteko erreferentea eta eragile erabakigarria ARRASATEko Esperientzia Kooperatiboaren kulturaren

garapenean. Enpresa mailako eskakizunak eta oraindik benetako funtzionamenduan asmatu gabe zegoen demokrazia kooperatiboaren betekizunak bateratzen asmatu zuen. Lanean bertan lidergoa garatuz, lidergo erabat soziala garatuz, esperientzia kooperatiboa eraikitzeke giltzarrietako bat izan zen. Alfonso hainbat erakundetako lehendakaria izan zen aldi berean, baina beti denon gogoan “LEHENDAKARIA” izango da. Kargu horretatik zeukan autoritateagatik eta bere karisma pertsonalagatik, ortodoxia kooperatiboaren jagolea izan da, baina ez urruneko jarrera doktrinal batetik, baizik eta zuzenean parte hartuz kooperatiban gertatzen ziren aldaketa sakonetan, eta zuzenean eta konpromisoz inplikaturaz unerik zailenetan. Aitzitik, Alfonsoren ibilbidera egiten dugun edozein hurbilketan nahitaez nabarmendu behar da irakasletza kooperatiboaren etsenplu erabatekoa izan zela. Beharbada hori izan da printzipio eta balio kooperatiboaren gaineko kontzientzian kutsurik handiena utzi duen lana. Doktrina eta demokrazia kooperatiboaren transmititzailerik nekaezina izan zen. Haren nortasunaren berotasunetik egindako transmisioa, sendoa, defendatzen zituen ideiei buruzko konbentzimendutik egina, baina adeitsua, pertsonenganako sentitzen zuen errespetu sakonetik abiatuta. Uste dut denok ulertuko didazuela esaten badut PLAZAGIZONA dela. Beti jakin izan du bere lekuan egoten. Gure kultura kooperatiboan guztia izan bada ere, bigarren mailara diskretu batera igaro da erretiroa hartu zuenetik, etorkizuneko belaunaldiak ez baldintzatzeko, erabat konbentziturik une bakoitzean pertsonak direla modu autonomoan euren bidea aukera behar dutenak, etorkizuna eraikitzeke erantzukizuna bere gain hartuz. 1989an, Laboral Kutxako lehendakari moduan despedidarako eman zuen hitzaldian esan zuenez, zeukan nahi pertsonal bakarra zen lau hitzeko esakune labur batez oroitu ahal izatea “gizon zintzoa izan zen”.

Eta, gure despedidan, Alfonso, eskerrak eman nahi dizkizugu zure konbentzimendu kooperatiboagatik, erakutsi diguzunagatik, belaunaldi askorentzat adibide izateagatik eta, batez ere, zure GIZATASUNAGATIK. Goian bego.